



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2026/14

**DEIALDIA, KIROL ESKOLEI DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN
EMATEKOA (2025-2026).**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

2026. urterako Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da 6 eta 14 urte bitarteko kirolariak partaide dituzten Oinarrizko Kirol Eskolen antolaketa diruz laguntzea. Plan horren 4. ildo-estrategikoan (Kirola) jasotzen da berriazko dirulaguntza-ildo bat kirol eskolei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdirako. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarrizko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

| | |
|-------------------------------------|---|
| 1. Administrazio deitzailea: | IRUÑEKO UDALA |
| 2. Organo emailea: | Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria |
| 3. Alor kudeatzailea: | Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorra |
| 4. Instrukzio-organoa: | Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa. |

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Denboraldiaren hasieran 6 eta 14 urte bitarteko kirolariak (2011-2019 bitartean jaiotakoak, biak barne) partaide dituzten "Oinarrizko Kirol Eskolen" antolaketa diruz laguntzea 2025-2026ko denboraldian. Kirol minoritarioetan, adin-tarte hori, kasu jakin batzuetan, 15 urtera bitarte zabalduko da (2010. urtea).

2. Deialdiaren helburua:

"Oinarrizko Kirol Eskolak" antolatuta, Lehen Hezkuntzako eta DBHko hezkuntza-etapetan eskola-ordutegitik kanpo kirola egitea sustatzen duten egitura tradizionalen sostengua bultzatuko da, dela Iruñeko kirol federatutik bultzatuta, dela kirol federatura bideratuta. Oro har, kirol jarduera federatuak aukera emanen du honako hauek lortzeko: a) elite-kirolerako progresioa kirol-errendimendu nabarmenagoa duten kirolarientzat, b) denbora jakin eta murriztu batez mantentzea kirol-lehiaketan interesak edo motibazioak dituzten pertsonak, eta c) pertsona batek astean zehar kirol kantitate handiagoa egitea hala neurritzkoa nola bizia, aisiako kirol-praktikarekin egiten denarekin alderatuta.

3. Ekintza, proiektu, jokamolde eta jarduera diruz lagungarriak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

a) Iruñeko udal-mugartean egin beharko dira, edo, beste leku batean egiten badira, izena eman dutenen



% 80k gutxienez Iruñean erroldaturik egon beharko dute kirol maioritarioetan eta gutxienez % 65ek, kirol minoritarioetan. Ehuneko hori lortuko ez balitz, eta bakarrik Iruñeko udalerrian egindako jardueren kasuan, eskaintzak diruz laguntzen ahalko dira, baina dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko erroldatuta ez dauden parte-hartzaileak.

b) Nafarroako Kirol Federazioek soilik antolatzen ahalko dituzte, usadioz Iruñeko kirol-jarduera federatua antolatu eta koordinatzeko izan duten zeregina kontuan hartuta. Salbuespenez, Oinarrizko Kirol Eskolen kasuan, Kirol Federazioen bat ez bada deialdira aurkezten –Nafarroako Kirol Egokituen Federazioa salbu, beste deialdi bat izanen baitu horretarako–, beste kirol-entitateen bat aurkezten ahalko da, gutxieneko nahitaezko baldintza hauek beteta: a) entitate bat bakarrik aurkezten ahalko da, deialdian kirol ofizial jakin batean aurkeztu den entitate bakarra bada; edo entitateen Elkarte modura, kirol jakin batean bi entitate edo gehiago aurkezten badira, eta b) izaten ahal dituen taldeetatik harago, Iruñeko leku eta entitate anitzetan kirol modalitate ofizial bereko ahalik eta talde gehien antolatzeko eginkizuna bere gain hartuko du –dagokion Nafarroako Kirol Federazioaren oniritziarekin bada hobe–, bai eta haietarako oinarrizkoak diren giza baliabideen, baliabide materialen eta instalazioen antolaketa koordinatzekoa ere.

c) 2025-2026ko denboraldiaren hasieran 6 eta 14 urte bitarte dituzten kirolariendako izanen dira, hots 2011tik 2019ra bitarte (biak barne) jaiotakoendako. Adin-tarte horretan sartzen ez den kirolari oro dirulaguntza honen xedetik kanpo geldituko da, salbu eta kirol minoritarioen kasuan, zeinetan 2010ean jaiotako kirolariak ere aurkezten ahalko baitira, betiere entitate bakoitzak aurkeztu dituen 2011tik 2019ra bitarte jaiotako eta dirulaguntzaren xede diren kirolarien guztizkoaren %10 gainditzen ez badute. Deialdi honen ondorioetarako kirol minoritariotzat joko dira 2025ean Nafarroan 1.500 federazio-lizentzia baino gutxiago dituzten kirolak –Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak emandako datu ofiziala–: badmintona, xakea, beisbola/softbola, errugbia, mahai-tenisa, boleibola, piraguismoa eta karatea, besteak beste.

d) Dirulaguntza honen xede izaten ahal diren gastuak finantzatzeko kuota ezin izanen da 45,00 €-tik beherakoa izan pertsonako, 8 hilabeteko eta astean 3 orduko.

e) Dirulaguntza “Emandako eskola-orduak” irizpidearen arabera kalkulatu ahal izateko (H letra), kirol bakoitzerako ratio/modulua honako hau izanen da:

- 25eko ratioa: eskubaloia, golfa, ehiza, saskibaloia, mendi-kirolak eta eskalada, futbola eta areto-futbola.
- 20ko ratioa: judoa, txirrindularitza, igeriketa, atletismoa, tiro olinpikoa, hipika eta gimnasia.
- 15eko ratioa: arku-tiroa, herri kirolak, euskal pilota, piraguismoa, xakea, espeleologia, tenisa, errugbia, triatloia, patinajea, taekwondo, karatea eta padela.
- 12ko ratioa: aurrez aipatu ez diren Nafarroako gainerako kirol ofizialetarako.

Aurreko ratio balioak kirol bakoitzeko dirulaguntza kalkulatzeko baino ez dira erabiltzen deialdi honetan, baina ez dira ezinbestean bat etorri behar eta ez zaizkie entitate antolatzaileei inposatzen haien eskolen benetako ratioak eratzeko.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 230.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 50/34100/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Entitate bakoitzari emanen



zaion diru-zenbatekoak ezin izanen du aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren defizitaren % 100 gainditu, eta, edonola ere, 60.000,00 €-ko banakako muga ezarri da Federazio edo entitate bakoitzeko (federaziorik ezean).

4. Hainbanatzeko aukera:

BAI EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Murriztapeneko bi hainbanaketa egingen dira: lehena, eskaera guztiak bakoitzari dagokion H letrako irizpideak jarraituta ebaluatu ondoren, guztizkoak esleitutako gehieneko aurrekontua gainditzen duenean. Hainbanaketa proportzionalki aplikatuko zaie onartuak izan diren eskaera guztiei. Bigarrenean, eskabide batzuetan potentzialki kentzen ahal diren kopuruak proportzioan banatuko dira kasuan kasuko taldeko gainerako eskabideen artean, betiere gainditu gabe hala banakako gehieneko kopuruak nola jardueraren defizita; beraz, behar beste hainbanaketa egiten ahalko dira.

5. Urte anitzeko deialdia: BAI EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

| | | | | | |
|-----------------|-----------|----------------|---|----------------|---|
| Urteko arrunta: | 230.000 € | 2. urtekoa () | € | 4. urtekoa () | € |
| 1. urtekoa () | € | 3. urtekoa () | € | | |

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

1. Legearekin bat eratuta egotea eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Entitateen Elkarteen kasuan, elkarteak eratzten duten entitate guztiek banan-banan bete beharko dute aurreko betekizuna.

2. Iruñean edukitzea taldearen egoitza soziala eta zerga-egoitza. Entitateen Elkarteen kasuan, elkarteak eratzten duten entitate guztiek banan-banan bete beharko dute aurreko betekizuna.

3. Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

4. Kirol-entitateen Elkarteek eginiko eskaeretan lankidetzak hitzarmena aurkeztu behar da, deialdi honetako IV. eranskineko ereduarekin bat.

5. Administrazio-bideko zehapen irmorik jaso ez izana 2025-2026ko denboraldian jarraian aipatzen diren legeetan "oso astun" gisa tipifikatutako arau-hausteengatik:

o 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, Kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa.

o 15/2001 Foru Legea, uztailaren 5koa, Nafarroako Kirolari buruzkoa.

o 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Ikuskizun Publikoak eta Aisialdiko Jarduerak arautzen dituenak.

Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak ez dira onetsiko.



Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

Lehena

Deialdi honen kargura dauden dirulaguntzen onuradun diren entitate eskatzaileek nahitaez adierazi beharko dute –izapide telematikoan dagokion laukiaren bidez– ea ezinbestean bete behar dituzten Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritako gardentasun-betebeharrak. Bete behar badituzte, izapide telematiko horretan bi agiri txertatu beharko dituzte: batetik, entitatearen zuzendaritza-karguen organigrama, haien eginkizunak, arduraldiak eta ordainsariak biltzen dituen agiria; eta bestetik, entitateak eskuragai dituen urteko azken kontuak biltzen dituen. Dokumentazio hori zuzendu edo osatu behar izanez gero, deialdi honetan laguntzen onuradun diren erakundeek betebehar horiek behar bezala betetzeko behar den informazio guztia eman beharko diote Iruñeko Udalari, Udalak hala eskatu ondoren eta hamar eguneko epean.

Bigarrena

Dirulaguntzaren xede diren kirol-eskaintzek ez dute izen ofizialean "udal" izenlaguna eramanen, ez baitira Udalarenak. Hala ere, jarduera bakoitzari emandako izenaren testu-lerro berean, jardueraren eragin sozialen inguruan entitate bakoitzak hartutako konpromiso boluntarioei buruzko sinbolo txiki edo etiketa informatibo batzuk sartu beharko dira (H.2 apartatua). Sinbolo edo etiketa horiek herritarrei informazioa emateko izanen dira, eta jardueren izenen ondotik jarri edo kendu beharko dira entitatea www.pamplona.es/eu/gaiak/kirola webgunean argitaratutako zerrenda eguneratuetan sartzen den edo ez aintzat hartuta. Orri horretan deskargatzen ahalko dira, halaber, aipatu sinbolo horiek. Iruñeko Udalak publikoki hedatzen ahalko ditu, egoki jotzen dituen bideetatik, etiketaren bat jaso duten berdintasunari edo jasangarritasunari buruzko proiektuak, betiere arlo horretan jardunbide onenen ereduak ikusarazte aldera.

Hirugarrena



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: BAI EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

BAI EZ

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2026ko ekainaren 19ra bitarte iraunen du.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administrazioak egin baditu,



salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde zuzenetik ebazpena emanen delarik, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztapenak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Kasu horretan, agiri horiek noiz, zergatik eta zein prozeduratan aurkeztu ziren adierazi beharko du.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluaekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiaztatuak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarrearen ordezkari edo ahalguzur bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta



entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat egingen da. BAI EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Deialdi honetako P apartatuan adierazitako edukia izanen du memoriak.

g) Deialdi honetako P letran eskaera-mota bakoitzerako aurreikusitako gainerako agiriak.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

H.1. 8.- ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

H.1.1. Kalkulua egiteko formula

Jaso daitekeen gehieneko dirulaguntza: $[(A + B + C) - (N * X)]$

A: H.1.2 irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa, eta H.2. irizpidea aplikatzean izaten ahal diren gehikuntzak

B: H.1.3. irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa

C: H.1.4. irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa

N: Parte-hartzaileen kopurua, guztira

X: 45,00 €: izen-emate kuotarako erreferentziatzeko diru-sarrerara, jarduera bakoitzeko kuota zehatza zein den kontuan hartu gabe.

H.1.2. Emandako eskola-orduak

Emandako eskola-ordu bakoitza (oinarrizko prezioa) diruz lagunduko da gehienez ere honako zenbatekoekin:

H.1.2.1. Oinarrizko prezioak

- 1. kategoria "Lehen Hezkuntza": 6 eta 12 urte bitarteko kirolari bakoitzeko (2019-2014) 16,00 euro (sexua kontuan hartu gabe). 2025-2026ko denboraldiaren hasieran, 2020. urtean edo ondorengoetan jaiotako kirolaririk ez da diruz lagunduko.

- 2. kategoria "DBH": 12 eta 14 urte bitarteko kirolari bakoitzeko (2013-2011), nesken portzentaje orokorra % 50etik beherakoa bada, edo % 70etik gorakoa, kategoria horretako guztizko kirolarien gainean: 16,00 euro. Kategoria honetan 2010. urteko kirol minoritarioetako kirolariak sartzen ahalko dira, deialdi honen B.3 apartatuan aurreikusitakoarekin bat.

- 3. kategoria "DBH": 12 eta 14 urte bitarteko kirolari bakoitzeko (2013-2011), nesken portzentaje



orokorra % 50 eta % 70 bitartekoa bada kategoria horretako guztizko kirolarien gainean: 19,00 euro. Kategoria honetan 2010. urteko kirol minoritarioetako kirolariak sartzen ahalko dira, deialdi honen B.3 apartatuan aurreikusitakoarekin bat.

Aurreko kategorien oinarritzko prezioak irakaskuntza lanagatik emandako udal-dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko dira, baina ez dute zertan bat etorri, eta ez zaizkie antolatzaileei ezartzen, ordu bakoitzeko oinarritzko prezio handiagoak zehazteko.

H.1.2.2. Emandako eskola-orduak kalkulatzeko formula

Eskola-orduko dirulaguntza = \sum (dirulaguntza. Kat i)

Dirulaguntza Kat i = $(N/R*H) * Op$

N: Parte-hartzaile kopurua, guztira, 1etik 3ra bitarteko i kategoria bakoitzeko.

R: Kirolaren araberrako ratioa/modulua (deialdi honetako B.3.e apartatuarekin bat).

H: 96: modulu bakoitzeko erreferentziatzko orduak, modulu bakoitzeko emandako eskola orduak gorabehera.

Op: Oinarritzko prezio aplikagarria.

H.1.3. Eskolen koordinazioa:

Eskolen koordinazioa entitatearen parte-hartzaile kopuru osoaren arabera diruz lagunduko da, aurreko atalean aurreikusitako 1, 2 eta 3 taldeetako kirolari guztiak batuta.

- 7. kategoria: 1.500 parte-hartzaile baino gehiago: gehienez 1983,34 €
- 6. kategoria: 1.250 eta 1.500 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.818,05 €.
- 5. kategoria: 1.000 eta 1.249 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.652,78 €.
- 4. kategoria: 750 eta 999 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.487,50 €.
- 3. kategoria: 500 eta 749 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.322,22 €.
- 2. kategoria: 250 eta 499 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.156,94 €.
- 1. kategoria: 100 eta 249 parte-hartzaile bitarte: gehienez 991,67 €.
- 0. kategoria: 100 parte-hartzaile baino gutxiago: 0 €.

H.1.4. Kirolerako berariazko materiala

Eskolako kirol modalitate bakoitzerako berariazko materiala erosteko dirulaguntza ematerakoan, entitate bakoitzeko parte-hartzaile kopuru osoa aintzat hartuko da, H.1.2. apartatuarekin bat, 1, 2 eta 3 kategorietako kirolari guztiak batuta, 10 parte-hartzaileko gehienez ere 40,00 eurekin.

Material horren ezaugarriak deialdi honetako L letran aurreikusitakoak izanen dira ezinbestean.

H.2. BERDINTASUNEN BI EKINTZEZ OSATUTAKO BORONDATEZKO PROIEKTUA

Atal honetan aurreikusten direnen artetik berdintasunaren aldeko bi ekintzez osatutako borondatezko proiektua gauzaten duten entitateei, H.1.2 apartatuarekin bat, 1,00 € igoko zaie emandako eskola-ordu bakoitzeko oinarritzko prezioa.

Borondatezko proiektua osatuko duten berdintasuneko bi ekintza horiek ondoren jasotzen direnen artean aukeratuko beharko dira ezinbestean. Denboraldi honetan udal-dirulaguntzen deialdi honen edo beste batzuen bidez diruz lagundutako jardueren kasuan, proiektu bat aurkezten ahalko dute jarduerak bakoitzeko, eta ezin izanen dute ezin berdintasun-ekintza erabili bi jardueratan edo gehiagotan aldi



berean, horrek ez badakar berekin berariazko eduki berritzaile eta berezia gehitzea.

H.2.1. Berdintasun-ekintzak

- 2024-2025eko denboraldiarekin alderatuta, azpi-ordezkatuta dauden arbitrajearen estamentuko edo estamentu teknikoko pertsonen federatu-lizentziak gutxienez % 6 handitzea. Kolektibo bat entitate batean azpi-ordezkatutzat joko da haren ordeztagarritasuna entitatearen estamentu tekniko horren guztizko federatu-lizentzien % 35etik beherakoa denean.

- Marketin-estrategia orokor bat txertatzea Kirol Eskolan, aldi berean berariaz zuzendua dagoena honako hauei: lehenik, erakunde antolatzailearen eskura dauden komunikazio-kanaletan, Zuzendaritza Batzordeetako pertsoneri irudiak eta/edo elkarrizketak erakustea, erakundearen egungo jardueretan azpi-ordezkatua dagoen sexua ordezkatzen dutenean; bigarrenik, beren sexua edo bestelako baldintzatzaile pertsonalak direla-eta kirol, ekitaldi edo jarduera horretan tradizionalki azpi-ordezkatu egon diren pertsonak bereganatzera. Horrek emakume eta nesken aldeko edo gizon eta mutilen aldeko jarduketak egitea ekarriko du, entitateak alde aurretik egindako diagnostikoarekin bat. Estrategia hori behar bezala dokumentatu beharko da, inplementazioan lorturiko emaitzekin batera, eta publiko egin beharko da.

- Material didaktikoa prestatzea, editatzea eta argitaratzea (ISBNarekin edo Creative Commons lizentziarekin) irakasle ariko diren langile teknikariendako, non berariaz eta modu adierazgarrian landuko diren berdintasunarekin eta hezkidetzarekin loturiko kirol alderdiak. Material horiek etengabeko hedapena, ikusgarritasuna eta presentzia eduki beharko dituzte entitatearen berezko komunikazio bitartekoetan (webgunea eta beste).

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

| | |
|------------------------|---|
| Batzordeburua: | Maider Beloki Unzu. Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko zinegotzia. Ordezkoa: Iruñeko Udaleko beste zinegotzi bat. |
| Batzordekideak: | |
| 1. | Íñigo Gómez Eguiluz, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: Víctor Piñero Larrasoaña, Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko idazkari teknikoa. |
| 2. | Daniel Martínez Aguado, Kiroleko Goi-mailako udal-teknikaria. Ordezkoa: Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko beste teknikari bat. |
| 3. | Jon Mendinueta Luzuriaga, Erdi-mailako teknikaria, Kirol zerbitzuari atxikia. Ordezkoa: Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko beste teknikari bat. |
| Idazkaria: | Kirol zerbitzuko administraria. Ordezkoa: Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko administrari bat. |

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Baldin eta instrukzio-organoak edo, hala badagokio, dirulaguntza kudeatzen duen teknikariak baloratzen badute aurkeztutako eskabideren batek hobeto erantzun diezaikeela Udalaren beste dirulaguntza-deialdi baten xede edo helburuei, eta deialdi horretara aurkezteko epea oraindik amaitu gabe badago, entitate eskatzaileari eta dagokion Alorrari jakinaraziko die, entitateak hala eskatuz gero, eskabidea dagokion deialdira helarazi ahal izateko.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: BAI EZ
- Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa edo webgunea.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek dira diruz lagungarriak:



L.1.1. Emandako eskola-orduak, talde bakoitzeko 96 ordu gehienez ere.

L.1.2. Jardueraren koordinazioa.

L.1.3. Kirolerako berariazko materiala.

Kirol bakoitzerako berariazko materiala eskuratzeko, material-elementu bakoitzeko 100 €-ko gastu-muga ezartzen da (zergak kanpo), piraguismo eskoletarako izan ezik, aipatutako balioa baino handiagoa izan baitateke salbuespenez.

Era berean, epigrafe honetatik edo beste batzuetatik kanpo geldituko dira honako hauek: a) ordenagailuak eta inprimagailuak erostea; b) informatika-material agorgarria erostea; c) bulegoko materiala erostea; d) autoak edo motozikletak erosi, mantendu edo amortizatzea; e) programa informatikoak; f) liburu, aldizkari edo bestelako argitalpenak, inprimatuak edo elektronikoak, kirolekoak edo beste esparruetakoak; g) osasun- eta mediku-zerbitzuek eragindako gastuak; h) desfibriladoreak; i) ekitaldietako sariak eta opariak, eta j) botika-kutxarako materiala.

Kirol jakin batean aritzeko berariazko kirol-materiala deialdi honetan diruz laguntzen ez diren taldeek edo kirolariek ere erabiliz gero, dagokion ehunekoa justifikatuta eta arrazoituta bereizi beharko da eskaeran.

L.1.4. Deialdi honetako H.2 apartatuan aurreikusitako proiektuari dagozkion berdintasun-ekintzak.

Entitateei berariazko gastua ekartzen badiete, behar bezala justifikatu eta arrazoitu beharko dira eskaeran. Bestelako berdintasun-ekintzek edo gizarte-jarduerak eragindako gastuak epigrafe honetatik kanpo geldituko dira.

L.1.5. Kontuan hartu beharreko beste batzuk: Dirulaguntza jasotzen ahal duen gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 12.000 eurotik gorakoa bada –ekipamendu-ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan–, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna jasotzeko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, dirulaguntza jasotzekoak diren gastuen ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egin ahal duen behar adina entitaterik ez bada edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, eragimen eta ekonomia printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko: lehen aipatutakoak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: 2025eko irailetik 2026ko maiatzera bitarte (biak barne). Kirolerako berariazko materialaren kasuan bakarrik epea 2026ko ekainaren 5ean amaituko da.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

BAI EZ

Ehunekoak: Azpikontratazioa onartzen da gastuaren % 100 bitarte, baldin eta hori egiten bada irabazi asmorik gabeko Iruñeko kirol-entitateekin. Hala egiten ez bada, ez da inolaz ere onartuko azpikontratazioa.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Justifikatu egin behar da finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerari aplikatzea: BAI EZ

Zenbatekoaren edo portzentajearen azalpena: onuradun gertatzen diren entitateek emandako dirulaguntza osoa erabiliko dute, guztiz edo parte batean, dirulaguntzaren xede diren jardueretan egindako gastuak finantzatzeko, inolaz ere gainditu gabe izandako defizitaren % 100. Udalaren dirulaguntzarekin bete ez den gastuaren parte onuradunak bere ekarpenarekin bete beharko du, edo kanpoko beste bitarteko batzuetatik jasotakoekin (beste dirulaguntza publikoak, parte-hartzaileen kuotak, etab.).

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak helburu bera duten dirulaguntzekin bateraezinak izanen dira soilik, baldin eta horiek Iruñeko Udaleko edozein alorretatik jaso badira, honako bide hauetako bat erabilita: dirulaguntzetarako deialdiak, lankidetzak-hitzarmenak, zerbitzuak kontratatzea edo bestelako akordioak. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, beste administrazioek, erkidegoko, estatuko edo nazioarteko entitate publiko, pribatu edo partikularrek emaniko dirulaguntzak aldi berean eskuratzen badira, eta ez badira lehenago justifikatu, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:



1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Dirulaguntza eman eta ordainduko da dirulaguntza emateko ebazpena eman eta koadro honetako P letran adierazitako agiri frogagarrien bidez aurkeztutako justifikazioa onetsi eta gero.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua:

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: BAI EZ

Justifikazio-kontu erraztua.

Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistema bat:

a) Diruz lagundutako eta egindako jardueraren ebaluazio-memoria laburra. Hona hemen memoria horren edukia: 1.) jarduera edo proiektuaren izena; 2.) helburuak eta xedea; 3.) Egindako jarduera tenporizatuak (barne hartuta -halakorik balego- berdintasuneko ekintzen borondatezko proiektuaren azalpena deialdiko H.2 apartatuarekin bat), 4.) kirol- eta gizarte-eragina; 5.) balantze ekonomikoa, bertan sartuta, gastuetan, deialdi honetako L letran dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastu-kontzeptu guztiak,



eta diru-sarreretan, jardueragatik kobratutako kuotak (gutxienez 45 € parte hartzaile bakoitzeko) zein lehen aipatutako beste diru-sarrera mota batzuk, diruz lagundu daitezkeen gastuak ordaintzera bideratutakoak, halakorik balego; eta 6.) ekarpen dokumental laburra (A4ko kartelak, sare sozialen zein webguneen pantaila-irudiak, eta abar), deialdi honetako E letran ezarritako hedapen-betebeharrak egiaztatzeko.

b) Hala badagokio, IV. eranskina "Lankidetzarako hitzarmen-eredua, kirola xede duten nortasun juridikorik gabeko entitateen Elkartea sortzeko".

c) V. eranskina "Partaidetza-moduluak Eskolaren eta monitore arduradunen arabera".

d) VI. eranskina "Modulu bakoitzeko parte-hartzaileen zerrenda". V. eranskinean adierazitako modulu bakoitzeko VI. eranskina beteko da. Lehentasunez, jaulkipenaren arduradunek elektronikoki sinatuko dituzte zerrenda horiek. Ez da onartuko kopiatutako sinaduren irudirik agiri elektronikoetan, ezin baita benetakotasuna bermatu.

e) VII. eranskina "Orduen eta ordainketen aitorpena, begirale arduradunak sinatua". Eskolan parte hartu duen begirale bakoitzeko VII. eranskinaren ale bat bete beharko da.

f) "Kirolerako berariazko materiala" erosi izana eta berdintasuneko bi ekintzez osatutako borodanteko proiektua egin izana (deialdi honetako H deialdian aurreikusitakoarekin bat) –halakorik egin bada– justifikatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira: agiri frogagarriak, indarreko legeekin bat jaulkitako fakturak, ordainagiriak, nominak, tributuak, Gizarte Segurantzaren kuotak eta gastuak frogatzeko gainerako egiaztagiriko balioak, trafikiko juridikoan balioa dutenak edo indar administratiboa dutenak eta egindako eta deialdi honetan diruz laguntzekoak diren gastuen balio frogagarria dutenak (L letra), modu korrelatiboan ordenaturik zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Agiri horien jatorrizkoak edo haien kopia konpultsatuak entitate onuradunak gorde beharko ditu, gutxienez lau urtez. Aurreko gastuei dagokienez aurkeztu beharko dira, baita ere, hartzekodunei egindako ordainketen agiri frogagarriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

"Kirol bakoitzeko berariazko materiala"ren fakturretan erositako elementu bakoitza xehekatu beharko da; hartara, ez da aski izaneren kontzeptu orokor bakarreko osoko faktura aurkeztea. Justifikatutako gastuek egindakoaren osotasunari eraginen diote, eta ez bakarrik kontzeptu horietan emandako dirulaguntzaren zenbatekora bitarte.

g) Justifikazio-agiriak gardenak eta egiazkoak izateko legezko betebeharrarekin lotutako justifikazioa webguneko izapidean egingen da. Gardentasunari dagozkion legezko betebeharren menpe dauden entitateek soilik aurkeztu beharko dituzte agiri gehiago (zehazki, azken kontuak eta organigrama eguneratua, karguak, arduraldiak eta ordainsariak barne).

h) Faktura jaulkitzen duen entitatea BEZetik salbuesirik badago, organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da, kasuan kasuko salbuespena egiaztatu eta horretaz fede emateko.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Aurreko apartatuan adierazitako agiri frogagarriak dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira, deialdi honek diruz laguntzen baititu deialdi honetako G letran eskaerak aurkezteko aurreikusitako epea amaitzean eginak dauden jarduerak.



Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietako batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan. Dirua itzularazteko berariazko arrazoia: BAI EZ

a) Ez betetzea dirulaguntzaren xedea.

b) Jasotako funtsen erabilera justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

c) Onuradunek bateragarriak diren dirulaguntzen bidez jasotako zenbatekoak jardueren kostuaren muga gainditzea, muga hori zenbatean gainditu eta hainbestean.

d) Oinarri honetan aipatzen diren egiaztapenei oztopoak jartzea edo horiek egiten ez uztea.

Dirulaguntza itzularazteko ebazpena organo-emaileak emanen du, behin espedientea instruitu eta gero, betiere aplikagarriak diren legeekin bat.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

G.4 apartatuko paragrafo hau ez zaio aplikatuko deialdi honi:

“Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak”.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKOA.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. Lankidetzarako hitzarmen-eredua, kirola xede duten nortasun juridikorik gabeko entitateen Elkarte bat sortzeko.
V. ERANSKINA. Partaidetza-moduluak, eskolaren eta begirale arduradunen arabera.
VI. ERANSKINA. Modulu bakoitzeko parte-hartzaileen zerrenda.
VII. ERANSKINA. Orduen eta ordainketaren aitortpena, begirale arduradunak sinatua.



Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*